



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023ko Ekaina

AEMPS-EK GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMAREN 2022KO JARDUERA-TXOSTENA ARGITARATU DU

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

HELDUENGAN DESEGOKIAK IZAN DAITEZKEEN MEDIKAMENTUAK ERABILTZEKO BEERS-EN IRIZPIDEAK EGUNERATZEA 2023

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ESKABIOSIRAKO (HAZTERIA) TRATAMENDUAK PRESKRIBATZEA

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

LABETALOLAREN HORNIDURA MURRIZTEA (TRANDATE®)

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

EMERADE® MARKAKO AUTOINJEKZIOKO ADRENALINA-LOTE BATZUEN ALERTA FARMAZEUTIKOA

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK:

- Erresistentzia antibiotikoen plan nazionalaren buletin berria
- Aztertuko den medikamentu berria: Romosozumab

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

AEMPS-EK GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMAREN 2022KO JARDUERA-TXOSTENA ARGITARATU DU

2022an, 60.261 jakinarazpen jaso ziren, medikamentuen kontrako erreakzioen susmoen berri emateko.

2023ko urtarrilean 10 urte bete ziren inprimaki elektronikoa (www.notificaRAM.es) ezarri zenetik. Inprimaki hori eskuragarri dago osasun-arloko profesionalentzat eta herritarrentzat. Aldi horretan, farmakozaintzako zentro autonomikoetara zuzenean bidalitako jakinarazpenen % 36 inprimaki honen bidez bidali ziren.

AEMPSek osasun-arloko profesionalen eta herritarren lankidetzak eskertzen du, eta gogorarazten du oso garrantzitsua dela kontrako erreakzioen susmoak jakinaraztea edo, txertoen kasuan, edozein gertaera kaltegarri jakinaraztea. Informazio hori oso garrantzitsua da medikamentuen balizko arrisku berriak identifikatzeko eta, ondoren, aztertzeko.

Kontrako erreakzioaren susmoaren jakinarazpenak alerten moduluaren bidez egiten dira Osabiden.

AEMPSaren informazio-ohar osoa kontsultatzeko, sakatu [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

HELDUENGAN DESEGOKIAK IZAN DAITEZKEEN MEDIKAMENTUAK ERABILTZEKO BEERS®-EN IRIZPIDEAK EGUNERATZEA 2023

Beers®-en irizpideak desagokiak izan daitezkeen medikamentuen zerrenda esplizitu bat dira, eta horien erabilera saihestu egin beharko litzateke adineko heldu gehienetan edo egoera espezifikoetan, hala nola zenbait gaixotasunetan. American Geriatrics Society sozietateak, profesionalen arteko aditu-talde baten bidez, azken eguneratzetik (2019) argitaratutako ebidentzia berrikusi du, eta aldaketa garrantzitsu batzuk onartu ditu, besteak beste, irizpide berriak gehitzea, dauden irizpideak eta formatua aldatzea erabilgarritasuna hobetzeko. Beers-en irizpideak nazioartean erabil daitezkeen arren, berariaz diseinatuta daude Estatu Batuetan adineko helduentzat erabiltzeko.

[Hemen](#) sakatuta sar zaitezke argitalpena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

ESKABIOSIRAKO (HAZTERIA) TRATAMENDUAK PRESKRIBATZEA

Prestazio Farmazeutikoen Zerbitzuak jakinarazi duenez, eskabiosi-agerraldiak ugaritu egin direnez, eta tratamenduarekin ahalik eta lasterren hasteko, hemendik aurrera, gure jakinarazpena arte, gehienez ere eskabiosia tratatzeko lau ontzi baimenduko dira (permetrina eta ibermekina) paperezko errezetan.

Pertsona baten tratamendua Presbiden sartu ahalko da, errezeta inprimatu eta, gero, errezeta paperean zuzendu daiteke, 4 ontzi behar dituela adierazita (zuzenketa sinatuta).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

AEMPSek murriztu egin du **labetalola 100 mg eta 200 mg konp. estalien (Trandate®)** hornidura egoera kliniko jakin batzuetarako.

Laborategi titularrak hauteman du nitrosaminen taldearen ezpurutasunen bat medikamentu honetan. Gaur egun banatzen ari diren unitateek ez dute gaintitzen ezpurutasun horretarako onartutako muga, eta, beraz, ez da beharrezkoa merkatutik erretiratzea. Hala ere, substantzia horrekiko esposizioa ahalik eta gehien murrizteko, AEMPSek lote berrien liberazioa blokeatu du, eta eskuragarri dauden unitateen erabilera murriztuko da, medikamenturik ez izateak hutsune terapeutikoa sortuko lukeen egoeretara.

Beraz, **labetalola haurdunaldian hipertentsioa tratatzeko baino ez da erabiliko.**

- Pazientea dagoeneko latalol konprimatuekin tratamenduan badago, medikuak txosten kliniko bat bidali beharko du, hurrengo medikamentua Atzerriko Medikamentuen (AM) bidez kudeatu beharko baita.
- Pazienteak tratamendu berri bat hasi behar badu, ordezeko tratamendu bat preskribatu beharko da (adibidez: metildopa edo nifedipinoa). Tratamendu horri behar bezala erantzuten ez badio, latalol konprimatuak preskribatu ahal izango dira. Txosten mediko justifikatzaile bat egin beharko da, atzerriko medikamentuen zerbitzuaren bidez emateko.

Haurdunaldian hipertentsioa ez den **beste indikazio** bat duten pazienteentzat: labetalol konprimatuen **ordezko tratamendu** bat preskribatu beharko da. Labetalol bidezko tratamendua hasi duten pazienteek harremanetan jarri beharko dute beren medikuarekin, ordezeko tratamendu bat preskribatu diezaieten.

[AEMPSren informazio-ohar osoa](#) erantsi da.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

AEMPSek alerta farmazeutiko baten berri eman du «EMERADE» medikamentuaren adrenalina autoinjektatzeko gailuko balizko kalitate-akats bati buruz. Akatsak ekar lezake autoinjektatzeko gailuak aktibatzean huts egitea, edo aktibatze indar gehiago behar izatea. Arazo hori medikamentu hauen edozein lumatan ager daiteke:

- CN 707627. EMERADE 500 MIKROGRAMO LUMA AURREKARGATUA EFG.
- CN 707618. EMERADE 300 MIKROGRAMO LUMA AURREKARGATUA EFG.

Ez dago Emerade®-ren preskripzio aktiborik Osakidetzan. Emerade®-ren banaketa beste marka batzuen preskripzioa ordezkatzeko egin da.

Farmazia-bulegoetan, segurtasun-alertaren eraginpeko loteetako ontzien ordezkariak, DOE bereko adrenalina-aurrekezpenak jarri behar dira, inolako kosturik gabe.

Pazienteari adierazi behar zaio akats hori gertatzeko probabilitatea txikia dela; beraz, ez ditu Emeraderen ontziak baztertu behar autoinjektore alternatibo bat eduki arte.

Saila harremanetan jarri da pazienteekin.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Horiek dira 2023ko maiatzeko berrikuntzak.

2023eko maiatza		
	Uromune autotxertoa	Uromune Autotxertoa Mihipeko espraia 2 flasko 9 ml. Baimenduta dago bakterio-infekzioek eta haien konplikazioek eragindako gernu-prozesuak prebenitzeko tratamendu gisa. <u>Bisatua behar du</u> eta, preskripzioarekin batera, pazienteari Q Pharmaren orri espezifikoa eta laginerako gutun-azala bete behar zaizkio; izan ere, pazienteak farmazian entregatu beharko ditu eskatzeko orduan.
	Flutikasona/Azelastina	Rinoduo 137 mcg / 50 mcg / Sudur bidezko lainoztagailurako pultsazioa. ASOZIAZIO BERRIA. Honetarako baimenduta: urtaroko errinitis alergikoaren sintomak arintzeko, moderatutik larrira, eta baita errinitis alergiko iraunkorraren sintomak arintzeko ere, antihistaminikoarekin edo sudurreko glukokortikoidearekin egindako monoterapia nahikoa ez bada helduetan eta nerabeetan (12 urtetik gorakoak).

2020ko urtarriletik aurrera berriak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK:

- **Erresistentzia antibiotikoen plan nazionalaren buletin berria**
- **Aztertuko den medikamentu berria: erromosozumaba**

Erresistentzia antibiotikoen plan nazionalaren buletin berria

PRANek maiatzean argitaratu du bere buletina, honako gai hauei buruzkoa:

- EDUCare mikrobioen aurkako erresistentziari buruzko proiektua abiarazi da.
- PRAN programak albaitaritzako medikamentuen eskuragarritasuna hobetzeko lehentasunen zerrenda bat aurkeztu du.
- PRANen webgunean eskuragarri dauden PROA ekipoak ziurtatzeko arauen laburpen-taulak.
- PRANen ikertzaile-sareak 9 talde berri ditu.
- Eskuen higiena.

Buletina kontsultatu nahi izanez gero, hortxe [esteka](#).

Aztertuko den medikamentu berria: Romosozumab

[Webgunean](#) eskuragarri dago Romosozumab «Aztertuko medikamentu berriraren» fitxa, osteoporosi larriaren tratamenduan, menopausia izan eta haustura-arrisku handia duten emakumeentzat, Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak egina.

Dokumentuen estekak: [Fitxa \(euskara\)](#) [Ebaluazio-txostena](#) [Kritika publizitateari](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Maiatzaren hornidura-gabeziarik garrantzitsuenak:


- **Hydrea 500 mg kapsula gogorrak, c/20.** Hidroxikarbamida.
Hornidurarik eza arintzeko, atzerriko medikamentu gisa **HYDROXIUREA MEDAC 500 MG KAPSULAK** eska daiteke. Behar duten pazienteei dagokienez, ez da mediku-txostenik behar. Nahikoa da pazienteak tratamendu aktiboa izatea Presbiden. Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin.
- **Septrin pediatrikoa 40 mg/ml + 8 mg/ml ahotik hartzeko suspentsioa.** Trimetoprima/Sulfametoxazola.
Hornidurarik eza arintzeko, atzerriko medikamentu gisa eska daiteke **EPITRIM 200 MG / 40 MG / 5 ML AHO BIDEZKO SUSPENTSIOA 100ML**. Ez da txostenik aurkeztu behar. Preskripzioa Presbiden zabalik badago, ez da errezetarik aurkeztu behar. Beti aurkeztu behar da OTIa.
- **Depakine 500 mg konp.** Farmazietan lortu ezin duten pazienteek **Depakine 500mg konp** atzerriko medikamentu gisa eska dezakete. Ez da txosten medikorik behar. Nahikoa da errezeta elektronikoan preskribatuta edukitzea (tratamendu-orria). Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin.
- **Dormodorea 30mg kapsulak** Hornidurarik eza arintzeko, atzerriko medikamentu gisa eska daiteke **Staurodorm 27,42 mg 30 konprimatu**. Ez da txosten medikorik behar. Nahikoa da pazienteak tratamendu aktiboa izatea Presbiden. Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin.
- **Buprex® 0,2 mg 20 konp. mihipekoak.** Bupronorfina.
- **Gabapentina 100 mg kapsulak, c/90.**
- **Edunix® 4 mg, 30 konp.** Hidromorfona.
- **Buscapina compositum® 2500 mg / 20 mg disoluzio injektagarria.** Metamizola/Butileskopolamina.
- **Buccolam® 10 mg ahotiko disoluzioa, 4 xiringa aurrekargatuak 2 ml.** Midazolama.
- **Elocom® 1 mg/g larruazal bidezko disoluzioa, 60 ml-ko 1 flasko.** Mometasona.

Hornidura berriak maiatzean:

- **Amoxizilina 125 mg/5 ml, jarabea 120 ml.**
- **Amoxizilina 250 mg/5 ml, jarabea 120 ml.**
- **Amoxizilina 250 mg/5 ml, jarabea 40 ml.**
- **Budesonida 0,25 eta 0,5 mg/ml, lainoztagailu bidez arnasteko suspentsioa.**
- **Zinnat® 250 eta 500 mg 10 konp.** Zefuroxima.
- **MST CONTINUS® 15 mg y 30 mg, 60 konp.** askapen luzekoa. Morfina sulfatoa.
- **Colirofta tropicamida® 10 mg/ml kolirioa disoluzioan.** Tropikamida kolirioa.
- **Sabrillex® 500 mg pikortua ahotik hartzea, 50 zorro.** Bigabatrina.
- **Betmiga® 50 mg, 30 konp.** Mirabegrona.

Medikamentuen hornikuntza gabe gelditzea

Presbiden, «Hornikuntzarik eza» botoia dago eskuragarri, «Preskripzioen kontsulta» pantailaren beheko aldean, medikamentuen hornikuntzarik ezari buruzko informazio erabilgarriarekin.



Botoi horren gainean klikatzean, Word taula bat deskargatzen da. Taula horrek informazioa ematen du medikamentu jakin batzuen hornikuntzarik ezaren egoerari buruz: eragindako aurkezpena, konponbiderako aurreikusitako data, balizko alternatibak, eskuragarritasuna baieztatu den data eta abar. Bilatzailearen bidez, bertan nabiga daiteke farmako jakin baten egoera ezagutzeko, marka komertzialaren eta/edo printzipio aktiboaren arabera bilatuta.

Nombre comercial	Principio/s activo/s	Fecha prevista de fin problema	Observaciones	Fecha de revisión del problema
Barnix® 10 mg caps lib modificada 28 y 56 caps	Barnidipino	Caja 28 cap: 10/06/023 Caja 56 caps: Finales mayo	Alternativa: presentación de 20 mg cápsulas o valorar otro tratamiento.	08/05/2023
Beneflur® 10 mg comprimidos	Fludarabina	Desconocida	Se puede solicitar vía medicamentos extranjeros	25/05/2023
Betmiga® 50 mg, 30 comp.	Mirabegron	Desconocida	SOLUCIONADO (30/05/2023)	30/05/2023
Buprex® 0,2 mg, 20 comp. sublinguales	Buprenorfina	20/05/2023	Valorar la utilización de otros tratamiento	15/05/2023
Buscapina Compositum® 2500mg/20 mg sol inyectable	Metamizol/Butil escopolamina	Desconocida	Disponibles presentaciones de los principios activos por separado.	26/05/2023

Era berean, hornidura-arazoak dituzten taula honetako medikamentu guztiek mezu bat izango dute lotuta presbiden, preskripzioa hastean zabalduko dena. Bi mezu-mota daude. Mezu orokorrak aurreko Word taulara bidaltzen gaitu, beste aukera batzuk ikusteko:

⚠ Hornidurarik gabeko medikamentuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu hornidura-gabezien taula Presbiden "Desabastecimientos" botoiaren bidez (Preskripzioen kontsulta pantailaren beheko aldean).

Bada beste mezu espezifikoago bat atzerriko medikazio-zerbitzuak medikamentua eskatzeko aukerari buruz zuzenean informatzen duena:

⚠ Medikamentuaren hornidurak etenaldiak ditu. Ez baduzu farmazia-bulegoan lortzen, jarri Osasuneko lurralde-ordezkaritzetako farmazia-ikuskaritzarekin harremanetan, atzerriko medikamentua eskatzeko.

Kasu horretan, pazienteak Osasun Ordezkaritzetako Farmazia Ikuskaritzarekin jarri behar du harremanetan medikamentua eskatzeko. Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin, eta aurretiko zita eskatu behar dute medikazioa honako telefono hauetan jasotzeko:

Araba: 945 017104; E-mail: farmacia-araba@euskadi.eus

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da